



## **UDAL-ANTOLAKETARI BURUZKO DEKRETUA**

«Toki Araubidearen Oinarriak Arautzen dituen Legearen 124.4.k) ARTIKULUAK –zeina 57/2003 Legearen bidez ezarria baita– eta X. titulu osoak Alkateari egozten diote “Udal-administrazio betearazlearen antolakuntza eta egitura ezartzea, udal-antolakuntzaren funtsezko mailen aurka joan gabe”; izan ere, horiek zedarritzea Osoko Bilkurari dagokio, Lege beraren 123.1.c artikularekin bat. Funtsezko maila horiek, aipatu agindu horren arabera, gobernu arlo nagusiak eta zuzendaritza-organoak dira, betiere “alkateak organo horietako bakoitzaren kopurua zehazteko eta beheragoko maila osagarriak ezartzeko dituen eskumenen kontra aritu gabe”.

Halaber, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko 6/1990 Foru Legearen 9 bis artikuluan ezarri zen Iruñeko Udalari erregimen erkideko legegintzako xedapen horren X. tituluan ezarritako araubidea aplikatu behar zaiola.

Eraketa juridiko horrekiko koherentziari eutsita, Alkateak, Dekretu honen bidez, “udal-administrazio betearazlearen antolakuntza eta egitura” ematen du, betiere Udal Administrazioaren Antolamenduari buruz egungo Erregelamenduaren funtsezko edukia gordeta, hau da, ontzat emanda badaudela, egon, alkatetza-kabinete bat, gerentzia bat (nahiz eta Alor bakar batean bildu) eta zuzendaritzak zein idazkaritza teknikoak, eta eskumen-banaketa gobernu-alorka antolatua dela. Bestalde, Legearekin bat arautzen ditu alorren kopurua eta beheragoko mailak. Eta, horrez gain, Toki Araubidearen Oinarriak Arautzen dituen Legearekin bat, Udalean nahitaez ezarri beharreko organoak sartu dira.

Alkatetzak 2015eko irailaren 15ean emandako Dekretuaren bidez onetsitako antolaketari dagokionez, aldaketa batzuk egin dira alor nagusien inguruan egituratutako eskema orokorrean.

Horiek horrela, honako hau XEDATZEN DUT:

### **1. artikulua. Egitura.**

Iruñeko Udalaren administrazio-antolaketa honako unitate organiko nagusi hauek osatzen dute:

#### **- Alkatetzako Alorra:**

Zuzenean alkatearen mende.

#### **- Gainerako gobernu-alorrak:**

Zinegotzi ordezkarien mende, eta haiei emandako eskumenekin bat, honako alor hauek ezartzen dira:

- Gardentasun, Berrikuntza eta Hizkuntza Politikako Alorra. Hari atxikia da Asociación Navarra de Informática Municipal SA (ANIMSA).
- Herritarren Partaidetzako eta Gizartea Ahalduntzeko Alorra.
- Berdintasuneko Alorra
- Gizarte Ekintzako Alorra. Hari atxikia da Udal Laguntza Etxean SA merkataritza-sozietatea (ASIMEC), zeina likidazioan baitago.
- Komunitate Garapeneko Alorra.
- Kultura eta Hezkuntzako Alorra. Hari atxikiak dira Iruñeko Haur Eskolak erakunde autonomoa eta Gayarre Antzokia Fundazioa.



- Hiri Bizigarriko eta Etxebizitzako Alorra. Horren baitakoa da Etxebizitza eta Birgaitze Bulegoa. Hari atxikiak dira Hirigintza Gerentzia erakunde autonomoa eta Pamplona Centro Histórico, Iruña Biziberritzen SA merkataritza-sozietatea.
- Hiri Ekologiako eta Mugikortasuneko Alorra. Hari atxikia da Energia Agentzia.
- Tokiko Ekonomia Jasangarriko Alorra. Horren baitakoak dira ekonomiaren, finantzen eta aurrekontuaren kudeaketa-organoak, bai eta Kontu-hartzaitza ere. Eta hari atxikiak dira Mercairuña SA eta Comiruña SA.
- Herritarren Segurtasuneko eta Elkarbizitzako Alorra.

## **2. artikulua.- Zuzendaritzen eta idazkaritzen araubidea.**

Alorrek, gutxienez, zuzendaritza eta idazkaritza tekniko bana izanen dituzte. Aurrekoa gorabehera, hainbat alorrek zuzendaritza eta idazkaritza tekniko bat eta bera partekatu ahalko dute.

Alkatetzako eta Gardetasun, Berrikuntza eta Hizkuntza Politikako alorrek Tokiko Ekonomia Jasangarriko Alorrari esleitutako idazkaritza teknikoak baliatu ahalko dituzte, bata zein bestea berdindin.

Halako organoei honako hauek dagozkie: gobernu-organoek haiek zein eskumenetarako eskuordetu eta horiek baliatzea, gobernu-organoei proposatzea haien eskumenen esparruan dagozkien aferak, Gobernu Batzarrari proposatzea, hark oneste aldera, hala xedapen-proiektu orokorrak nola haien eskumenen esparruan dagozkien gainerako proposamenak, eta nolana ere, honako eginkizun orokor hauek ere:

### **- Alorretako zuzendaritzak:**

- Beren eskumeneko zerbitzuak zuzendu eta kudeatzea.
- Alorrei atxikitako unitate organikoak zuzendu eta koordinatzea, zeinek bere alorrekoak.
- Xedapen- akordio- eta hitzarmen-proiektuak egitea, beren eginkizunen esparruko gaiiei buruz.
- Urterako esleituko dieten aurrekontua egitea, bai eta haren segimendua eta kontrola ere.
- Beren eskumeneko zerbitzuak ebaluatzea.
- Alorrei atxikitako langileen gaineko ardurak, zeinek bere alorrekoak.

### **- Idazkaritza teknikoak:**

- Zeinek bere alorreko zerbitzu komunak kudeatzea.
- Alorretako titularrei laguntza teknikoa ematea administrazio-afereetan.
- Alorrei esleitutako bitarteko eta baliabide materialak, ekonomikoak eta pertsonalak modu eraginkorrean baliatzeko eginkizunak, horretarako behar diren jarraibideak emanaz alorrei atxikitako langileei.
- 
- 
- Espedienteak bideratu eta zaintzea, antolamendu juridikoarekin bat datozela segurtaturik eta haien aurrekariak azalduta.

Eginkizun horiek betetzeko, idazkari teknikoek txostenak, datuak, agiriak eta jarduketak eskatu ahalko dizkiete alorretako zuzendariari, beren alorrei atxikitako abokatu edo zuzenbidean lizentziadunei eta gainerako langileei, bai eta kasuan kasuko alorraren mende dauden erakunde eta entitateei ere.



### **3. artikulua.- Eskumen-banaketa alorrez alor.**

Honako unitate organiko hauei dagozkie ondoan zerrendatutako zeregina eta eginkizunak, betiere Alkateak eta Tokiko Gobernu Batzarrak kasuan kasuko eskumenetarako eskuordetze-xedapenetan ezarritakoarekin bat:

#### **1. ALKATETZAKO ALORRA**

Alor honetan, funtsean, orain arte Alkatetza Kabineteak eta Udal Gerentziak zituzten eginkizunak eta eskumenak elkartzen dira, eta haiei beste eginkizun batzuk gehitzen zaizkie. Alor hau Alkatearen mende dago zuzenean. Alor honek lau lan-esparru izanen ditu:

##### **a) Alkatetza Kabinetea, Protokoloa eta Komunikazioa.**

- Alkatearen aholkularitza, laguntza eta idazkaritza.
- Erakundeekiko eta kanpoko harremanak.
- Protokoloa.
- Kanpora begirako jarduketaren koordinazioa eta gainbegiratua.
- Hiriko ekitaldi ofizial eta ospakizunen zuzendaritza.
- Iruñeko Udalaren eta hiri senidetuen arteko harremanen sustapena.
- Alkatetzako kontuak.
- Udal-jarduna helaraztea herritarrei, dela bere bitartekoak baliatuz dela komunikabideen bidez.
- Egun ditugun komunikazio-tresnen zein etorkizunean izan daitezkeen koordinazioa eta dinamizazioa, bai eta zeregin horretan ari diren udal-langileena ere.

##### **b) Administrazioaren Koordinazio Teknikoa – Udal Gerentzia.**

- Aldian-aldian gobernu-alorren funtzionamenduaren koordinazio teknikoaren egitea Koordinazio Teknikorako Mahaiaren bidez, bertan alor guztietako zuzendariak parte hartuta; alorretarako elkarguneak proposatuko ditu, halakorik izan ezean. Aipatu mahai horretan, parte-hartzaile iraunkorrak izanen dira Berdintasuneko eta Hizkuntza Politikako zerbitzuak, ziurtatzeko era egokian ezartzen direla hala zeharkako jardun-planak nola erabilerraztasun unibertsala bermatzeko ekintzak.
- Iruñeko Udaleko memoriak.
- Jarduera-planak proposatu eta Udalaren helburuak gauzatea, eta horiek betetzeko behar diren baliabideak esleitzea, dagozkien aurrekontu-arauekin bat.
- Harremanak Arartekoarekin eta Kontuen Ganberarekin.
- Udalak bere gain hartutako konpromisoak eta adierazleak betetzearen jarraipena, alor guztiekin lan eginik eta aginte-taula integral bat osatuta.
- Udaleko zerbitzuen kalitatea helburu duten jarduketak betetzeko sustapena eta gainbegirada.
- Jarduketa-planen ebaluazioa, haiek aldatzeko edo bertan behera uzteko behar beste proposamen eginda.
- Alorrei urtean-urtean esleitu behar zaizkien baliabideei buruzko proposamena, aurrekontuetan.
- Hala behar izatera, antolaketa-aldaketei buruzko txostena egitea, alorren eta departamentuen antolaketa- eta egitura-proiektuak barne hartuta.



### **c) Estrategia Bulegoa.**

- Udalaren epe luzeko plan estrategikoa diseinatu, landu, kudeatu, jarraipena egin, ebaluatu eta koordinatzea, zeinak barne hartuko baititu Hiri Plan bat eta Auzoen Plan bat. Azterlan eta analisi estrategikoak egitea.
- Eskualdeko, estatuko zein Europako finantzaketa lortzea Udalaren plan estrategikoari zein sektoreko udal-plan eta -estrategiei lotutako proiektuak garatu eta abian jartzeko.
- Hautagaitzak prestatzea eta aholkularitza teknikoa ematea diru-laguntzen deialdietara aurkezteko, eta Europar Batasunarekin batera finantzatutako udal proiektuen koordinazioa, kudeaketa eta kontrola.
- Udalaren zeharkako estrategiak, planak, programak eta proiektuak bultzatu, kudeatu eta koordinatzea, Udalaren Alor bati baino gehiagori eragiten badiote, hala nola Hiri Behatokia, udal-kudeaketarako plana, Geografia Informazioko Udal Sistema, nekazaritzako elikagaien gaineko politika garatzea, klima-aldaketa arindu eta horra egokitzeko politika...
- Hiriaren gizarte-egoerari eta haren eraldaketei buruzko azterketa soziologikoak egitea, lagungarri izan daitezen erabakiak hartzeko unean.
- Hirian eta Udalaren kudeaketan berrikuntzazko proiektuak diseinatu, kudeatu eta gauzatzea.
- Iruñeko Udalaren parte-hartzea kudeatu eta koordinatzea, udalerrien elkarte eta sareetan.
- Udaleko beste alorrei babes teknikoa ematea proiektuak zedarritzeko eta azterlanak eta analisiak egiteko, ikuspegi integrala –zeharkakoa zein estrategikoa– eskainita.

## **2.- GARDENTASUN, BERRIKUNTZA ETA HIZKUNTZA POLITIKAKO ALORRA.**

Hona alorraren helburuak: gardentasuna eta udal-administrazioaren informazio zein kudeaketarako irisgarritasuna sustatzea, betiere administrazio oneko eskubidea betez eta gobernu irekiko forma berriak gordez; berrikuntza teknologikoak eta administrazio elektronikoaren ezarpena zein hobekuntza sustatzea, Smart City estrategia diseinatu eta garatzea; eta Udalak zein Udal Sektore publikoak –zeina erakunde autonomoek eta Udalaren pean dauden enpresa publikoek eta fundazioek osatzen baitute– egiten dituzten kontratazio publikoekin zerikusia duen oro. Halaber, alor honi atxiki zaizkio Udalaren zerbitzu juridikoak, ezertan galarazi gabe Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 122., 129. eta artikuluko konkomitanteetan xedatutakoa. Hari ematen zaio Udalak Asociación Navarra de Informática Municipal, S.A. (ANIMSA) merkataritza-sozietatearekin dituen harremanen ardura.

Bestalde, Hizkuntza Politikako gaiez arduratzen da Udalaren eskumena den orotan, eta, hori horrela, hirian euskara bultzatu, hedatu eta sustatzea.

### **a) Gardentasuna:**

- Gardentasuna eta informazio publikorako irisgarritasuna lortzeko politikak bultzatu eta sustatzea.
- Intranetean, Udal-webgunearen eta egoitza elektronikoaren informazioa eta egitura kudeatzeko zereginak koordinatu eta gainbegiratzea. Argitaratu beharreko gutxieneko



edukiak zehaztea, gardentasun-adierazleak bereziki adierazita. Iruñeko Udalarari helarazitako gardentasun-eskaerak ebaztea.

- Udalaren gardentasun-eredua, datuen babesari eta informazioa eskuratzeko eskubidea koordinatu eta gainbegiratzea, Gardentasunari eta Gobernu Irekiari buruzko ekainaren 21eko 19/2013 Foru Legea, Gardentasunari, Informazio publikoa eskuratzeko bideari eta Gobernu onari buruzko abenduaren 9ko Legea eta aplikagarri diren gainerako arauak betez.

#### **b) Berrikuntza:**

- Administrazio elektronikoaren ezarpena eta hobekuntza, eta Udalak ANIMSArekin dituen harremanak ordenatu eta gidatzea. Aplikazio informatiko berriak abiaraztea, herritarrekiko harremanak hobetze aldera.
- Smart City estrategia koordinatu eta garatzea, berrikuntza teknologiko aplikatuarentzat, Udaleko gainerako alorrekin batera, betiere lankidetzan sustatuz Nafarroako Unibertsitate Publikoko SmartCities Institutuarekin, bestelako unibertsitate-zentroekin, erakunde publikoekin eta sektoreko enpresekin.

#### **c) Udal-sektore publiko instituzionalaren politika orokorra**

- Politika orokorra finkatzea udal-sektore publiko instituzionalari dagokionez, besteak beste honako gai hauekin: kontratazioak, gardentasuna, datuen babesari buruzko legeak betetzeko eta Iruñeko Udalak onetsitako agiri elektronikoaren plan zuzentzailea abiatzeko.
- Beharrezko diren jarraibide orokorrak ematea udal-sektore publiko instituzionalak bete ditzan aplikagarri zaizkion legeak.

#### **d) Kontratazio publikoa.**

- Udalaren, haren erakunde autonomoen eta haren pean dauden Tokiko sektore publikoen (Sozietate publikoak, fundazioak eta bestelako entitateak) kontratazio publikoaren politika orokorra diseinatu eta koordinatzea.
- Kontratazio-agiri orokorrak egokitzea honako hauek eratorritako marko juridiko berriaren arabera: 2014ko Zuzentarauen laugarren paketea, sektore publikoko kontratuei buruzko 2014/24/UE Zuzentzarau berriazkoa, eta geroan onets daitezkeenak.
- Izaera estrategikoko kontratazio publikoa bideratzea, 2020 Europar Estrategiak ezarritako helburuak –garapen arduratsukoak gizarteaz bezainbatean, eta jasangarriak zein berritzaileak ingurumenari dagokionez– lortzen laguntzeko.
- Erosketa publiko berdea, sozialki arduratsua eta berritzailea sustatzea kontratazio-agiritan gizarte-, ingurumen- eta berrikuntza-klausulak gehituta.
- Udaleko alorrei laguntza ematea, aholkularitza juridikoaren bitartez, kontratazio-agiriak egiteko, eta kontratuak gauzatzeko fase ezberdinetan.
- Udal Kontratazio Publikorako Unitate Zentral bat abiatzeko aukera aztertzea, eta baieztatzeko, hura ezartzea.



- Kontratazio publikoa eskuratzen errazteko ekimenak abiatzea honako hauen alde: enpresa txikiak eta ertainak, langile autonomoak, gizarte-ekonomiako entitateak eta irabazi-asmorik gabeko erakundeak, hala nola Trebatu proiektua.

#### **e) Zerbitzu Juridikoak.**

##### **Aholkularitza Juridikoa.**

- Titularrak (zuzendaria) Toki Araubidearen Oinarriak Arautzen dituen Legeak egozten dizkion eginkizunak izanen ditu: Alkatearendako, Tokiko Gobernu Batzarrarendako eta zuzendaritza-organoendako laguntza eta aholkularitza juridikoa, defentsaren zuzendaritza eta ordezkari eta epaiketetan eta kontratazioa.
- Bere eginkizunak gauzatuta, titularrak (zuzendaria) behar diren zerbitzuko jarraibideak eta aginduak emanen ditu.
- Zuzenean Aholkularitza Juridikoaren Zuzendaritzaren mende arituta, Tokiko Gobernu Batzarrari laguntzeko organoaren Titularrak Toki Araubidearen Oinarriak Arautzen dituen Legeak egozten dizkion eginkizunak izanen ditu, bai eta zerbitzu juridikoak koordinatzekoak ere.

##### **Idazkaritza Nagusia.**

- Osoko Bilkurako Idazkaritza Nagusia.

#### **f) Administrazio orokorra.**

- Errolda.
- Erregistroak.
- Izatezko bikoteen erregistroa eta ezkontza zibilak.
- Herritarrendako Arreta Zerbitzua.
- Udal Agiritegia.
- Datuak babesteko legeak betetzearen gaineko eginkizuna.

#### **g) Hizkuntza Politika.**

- Euskararen erabilera eta sustapenerako normalizazio-jarduketak bultzatzea.
- Lankidetzan aritzea, elkarrekin lanean, euskararen inguruan ari diren kolektiboekin.
- Giza-baliabideak zein bitarteko materialak ezartzea, euskaldun guztien hizkuntza-eskubideak bermatzeko.
- Jarduketak sustatzea euskara ikusgarri egiteko.
- Euskararen Ordenantza eta aplikagarri diren gainerako arauak betetzen direla zaintzea.

### **3. HERRITARREN PARTAIDETZAKO ETA GIZARTEA AHALDUNTZEKO ALORRA.**

Gobernu-jardunaren ildo nagusietako bat sustatzen du: Partaidetza, eta, haren bidez, herritarren ahalduntzea. Udalaren eta herritarren artean komunikatzeko bideak ireki eta harremanetarako zubiak eraikitzea. Herritarren Partaidetzarekin eta Gizarte Ahalduntzearekin zerikusia duten jarduketak planifikatu eta koordinatzea. Adinekoen, aniztasunaren eta migratzaileen zein beste zenbait gizarte-sektoreren aldeko politikak abiarazteko ekimena kudeatzea.



### **a) Herritarren Partaidetza:**

- Hiriko elkarte eta entitateen erregistroa.
- Herritarren entitateendako diru-laguntzen kudeaketa.
- Zentroko aretoak, Calderería kaleko Erabilera Anitzeko aretoa eta partaidetzako gune kogestionatuak zein autogestionatuak kudeatzea.
- Zeharkako partaidetzarako barne-guneak sustatzea udal-alorretan, hala unean-unean *ad hoc* sortutako mekanismoekin nola koordinazio-mahai tekniko bat sortuta, Udalean zein Udalaz gaindi herritarren partaidetzari lotutako gaietan lan egiten duten teknikariei zuzenduak.
- Partaidetza-prozesu jakin eta zehatzak sustatu eta dinamizatzea, lurraldekoak zein sektorialak, halako eran non haien aukera bihurtuko baitira behetik abiarazteko Iruñeko Udalaren Herritarren Partaidetzako Erregelamenduan aurreikusitako partaidetza-organoak: auzo-kontseiluak, kontseilu sektorialak eta Hiriko Gizarte Kontseilua.
- Udal-kontseiluak sortzea, zenbait adin-talde eta gizarte-sektoretakoak –haurrak, gazteak, adinekoak eta berdintasuna–, haien arazoak berariaz lantzeko, eta sor daitezkeen bestelako kontseiluak sustatu, babestu edo koordinatzea, beste zenbait gai jorratze aldera (dibertsitate funtzionalak, auditoretza herritarra, ingurumena eta mugikortasuna, kultura, euskara, etab.).
- Auzo-eztabaidaguneak eta Auzo-kontseiluak sortzen laguntzea, auzo bakoitzaren berezitasunei erreparaturik eta dinamizazio-plan bereziak garatuta alde geldoenetan.
- Hiriko Gizarte Kontseiluaren eraketa.
- Aurrekontu partizipatiboak sustatzea.
- Arauetan behar diren aldaketak egiteko proposatzea, partaidetza modu malguan hedatze aldera maila guztietan.
- Online partaidetza eta herri-galdeketak sustatu eta koordinatzea.
- Laguntza ematea herritar guztiei irekitako ekitaldien bitartez herritarren partaidetza sustatzen duten elkarteei.
- Boluntarioritza sustatzeko programak indartu eta bultzatzea.
- Elkarteei prestakuntza ematea teknologia berriei, kontabilitateari, diru-laguntzen bilaketari eta abarri buruzko ikastaroen bitartez.
- Partaidetzarako tokiko behatoki bat sustatzea, edo kontseilu sektorial bat, partaidetzaren inguruko eztabaida- eta koordinazio-gune tekniko gisara, non presentzia izanen baitute erakundeak, gizarte zibilak eta ezagutzaren esparruak.
- Ahalduntze- eta partaidetza-eskola bat sustatzea, politikariak, funtzionarioak, gizarte zibila, herritar-kolektiboak zein -entitateak eta sektore soziokomunitarioko profesionalak baliabidez hornitu eta gaitze aldera.

### **b) Gizarte Ahalduntzea:**

#### **1. Adinekoak:**

- Adinekoei zuzendutako programak garatzea, batik bat, haien ahalduntzea sustatzen ahal dutenak.
- Sinergiak sortzea partaidetza-prozesuetan, –unean unekoetan eta lurraldekoetan– eta Adinekoen Kontseilua suspertzea.



## 2. Kultur aniztasuna:

- Migratzaileei zein migratzaile ez direnei zuzendutako programak garatzea, batik bat, haien ahalduntzea sustatzen ahal dutenak.
- Sinergiak sortzea partaidetza-prozesuetan, dela unean unekoetan dela lurraldekoetan.
- Gai honi dagokion kontseilu sektoriala eratzea.

## 4. BERDINTASUNEN ALORRA

Alor honek aparteko garrantzia dauka udal-jardunean. Berdintasuna sustatzen du emakumeen eta gizonen artean, ekitatea bilatzen du, eta babesak ematen dio LGTBQI kolektiboari. Alorrek Berdintasunaren aldeko politikak sustatu eta koordinatzen ditu, zeinak, betiere, zeharkakotasun-izaeraz abiatuko baitira, Udalaren jardunaren alde guztietan. Alorraren jarduna Iruñeko III. Berdintasun Planarekin bat (2016-2022) garatuko da, betiere kontuan hartuz bere helburuak, esku hartzeko esparruak, ildo estrategikoak, berriak eta jarduketak.

### a) Berdintasuna:

- Ekintza positiboko berriak neurriak diseinatu eta sustatzea.
- Sustapen-lana genero-ikuspegia txertatzeko zeinek bere administrazioaren politika, programa eta ekintza guztietan, maila eta fase guztietan.
- Aholkularitza eta laguntza ematea zeinek bere administrazio sailei eta haren mende dauen gainerako erakunde eta organoei emakumeen eta gizonen berdintasunari buruz.
- Dagokion lurralde-eremuan bizi diren herritarrak sentsibilizatzea emakumeen eta gizonen ezberdintasun-egoeraz eta berdintasuna sustatzeko abiarazi behar diren neurriez.
- Proposamenak eta sustapen-lana egitea zeinek bere administrazioan berriak programak edo zerbitzuak egokitzeko eta sortzeko, bereizkeria anizkoitzak jasaten duten emakumeek oinarrizko gizarte-erakundeak izango dituztela bermatze aldera.
- Proposamenak eta sustapen-lana egitea baliabide eta zerbitzu soziokomunitarioak sortu eta egokitzeko, emakumei eta gizonen bizitza pertsonala, familia eta lana uztartzen laguntze aldera.
- Norberaren lurralde-eremuan gertatzen diren bereizkeria-egoerak hautematea, eta egoera horiek erortik kentzeko neurriak diseinatzea eta sustatzea.
- Erakunde publiko zein pribatuekin harremanak finkatzea eta partaidetza eta lankidetzarako bideak ezartzea, baldin eta erakundeon xedeek edo eginkizunek emakumeen eta gizonen berdintasuna erdiesten laguntzen badute.
- Administrazioari atxikitako langileek emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan dituzten prestakuntza-beharrizanak diagnostikatzea, eta proposatzea kasu bakoitzean behar den prestakuntza-mota zein prestakuntza hori eskuratzeko orduan aplikatu beharreko irizpideak eta lehentasunak.
- Solaskidetza emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan eskumenak dituzten erakunde, organo eta unitateekin, eta, bereziki, Nafarroako Berdintasunerako Institutuarekin.
- Compañía kaleko zentroaren kudeaketa eta dinamizazioa.
- Laguntzak banatzea berdintasuna sustatzen duten entitateei, haien iraupena eta funtzionamendu egokia bermatze aldera (adibidez, Emakumearen Liburutegiari).





## b) LGTBQI

- LGTBQI kolektiboei –lesbiana, gay, transexual, bisexual, queer eta sexuartekoen kolektiboei– zuzendutako programak garatzea, batik bat, haien ahalduntzea sustatzen ahal dutenak.
- Sinergiak sortzea partaidetza-prozesuetan, dela unean unekoetan dela lurraldekoetan.

## 5. GIZARTE EKINTZAKO ALORRA

- Udalaren gizarte-zerbitzuen sistema publikoa herritarren eskura jartzea ahalbidetzen du, herritarren beharrei erantzuna emanda, komunitate solidarioagoa, orekatuagoa eta gizarte-kohesio handiagokoa lortze aldera.
- Herritarren sentsibilizazioa eta elkartasuna sustatzea, gizarte-kohesio handiago bat objektibatzeko tresna gisara.
- Herritarrek nozitzen edo nozitu ahal dituzten premiazko gizarte-egoerei aurre hartu eta antzematea, eta harrera egitea herritarrei gizarte-zerbitzuetako eta -orientazioko sisteman, auzo-unitateen bitartez.
- Mendekotasun-egoeren prebentzioa, norberaren autonomiaren sustapena eta beren kabuz moldatzeko arazoak dituzten pertsonendako zein mendekotasuna duten pertsonendako bestelako prestazioetara bideratuz.
- Bazterturik gelditzeko arriskuan edo bazterturik dauden pertsonak gizarteratzeko eta lan munduan sartzeko ekintzak, ibilbide pertsonalizatuak osatuta. Prestakuntza- eta enplegu-programen garapena, aipatu pertsonen enplegarritasuna hobetzeko, eta gizarte-enplegu babestuari buruzko proposamenen formalizazioa, haien gizarte- eta lan-sustapenari begira.
- Pobreziari eta gizarte-bazterkeriari kontra egiteko ekintzak, batik bat, gizarte-larrialdiko egoerei aurre egitera bideratutakoak.
- Bizileku-baliabideak gizarte-larrialdi baten edo haien inguruabar sozio-pertsonalen ondorioz gizarte-egoera ahulean dauden pertsonendako (adinekoendako apartamentuak, emakumeendako eta haien seme-alabendako etxebizitzak, etxerik gabeko pertsonendako udal-zerbitzua...), eta gizarte-larrialdiko etxebizitzak.
- Haurrei eta familiei laguntzeko programak. Prebentzioa, detekzioa eta esku-hartzea adingabeen arrisku- edo babesgabetasun-egoeretan zein gizarte-gatazkakoetan.
- Arreta intentsiboa, espezializatua eta pertsonalizatua, genero-bortizkeria nozitzen duten edo nozitzeko arriskuan dauden edota beren autonomia berdintasun-baldintzetan baliatzeko gizarte-zailtasunak dituzten emakumeendako eta haien seme-alabendako.
- Garapenaren aldeko lankidetzeta eta nazioarteko elkartasuna garatzeko udal-politika.
- Lankidetzeta hitzarmenak Nafarroako Gobernuarekin, Gizarte Zerbitzuen esparruko programak garatzeko.
- Kanpoko finantzamendua erakartzea Gizarte Zerbitzuetako programak garatzeko.
- Informazio-sistemak garatzea, gizartearen errealitatea ezagutzera eta emandako zerbitzuen plangintzara eta ebaluaziora zuzendutakoak.

## 6.- KOMUNITATE GARAPENEN ALORRA



Inplikaturik dauden gainerako udal-alorrekin batera, ardura dauka honako hauek dinamizatu eta kudeatzeko: Komunitate Ekintzako proiektua Iruñeko auzoetan, Gizarte Ekimenetarako Zentro Komunitarioen kudeaketa, Komunitate Prebentzioko programa eta gazteriako politikak. Halaber, Kirol arloko udal-politika publikoak garatzen ditu.

**a) Komunitate Garapena:**

- Gizarte Garapeneko Plan Zuzentzailea egitea, inplikaturik dauden gainerako alorrekin batera, bereziki Gizarte Ekintzako, Herritarren Partaidetzako eta Gizarte Ahalduntzeko, Kultura eta Hezkuntzako, Herritarren Segurtasuneko, eta Hiri Bizigarriko eta Etxebizitzako alorrekin.
- Komunitate Ekintzako proiektua koordinatu eta dinamizatzea hiriko auzoetan. Horretarako, zeharka lan egingen du, gainerako udal-alorrekin eta auzoetako elkarte-hunarekin batera.
- Komunitate Garapeneko jarduketak programatu, antolatu, babestu eta ebaluatzea lankidetzan arituta hala komunitate-prozesuak eratzen dituzten gizarte-eragileekin eta erakundeekin nola gaian inplikaturik egon daitezkeen gainerako udal-alorrekin.
- Gizarte ekimenetarako zentro komunitarioen kudeaketa eta mantentze-lanak.
- Komunitate Prebentzioko programaren kudeaketa, zeinak, besteak beste, honako eginkizun hauek dituen: Oinarrizko prebentzioa eta bigarren mailakoa haur eta gazteekin, eta adin-sektore horren sustapena, bai eta haurren eta gazteen arta ere, Gizarte Ekintzako Alorrekarekin batera parte hartzeko prozesuak abiatuz. Haurren eta nerabeen garapena eragotz dezaketen egoerei antzeman eta horiek jakinaraztea. Sarean lan egitea erakunde publikoekin eta auzoetako organo ez formalekin.
- Komunitate Ekintzako Prebentzio Lantaldeen ezarpena Iruñeko auzo guztietara zabaltzea, bai eta lantalde horien eginkizunak handitzea ere.
- Topaguneak sortu eta iraunaraztea, pertsonak, taldeak eta elkarteak parte zein konpromisoa har dezaten auzoetako biztanleen bizi-baldintzen hobekuntzan.

**b) Gazteria:**

- Gaztediaren Etxea mantentzea eta sustatzea (ikastaroak, aholkularitza, zibergela, etab.).
- Iruña Gaztea III. Planaren erredakzioa eta garapena.
- Gazteei zuzendutako programak garatzea, batik bat, haien ahalduntzea sustatzen ahal dutenak.
- Babesa, gazteek garatutako ekimenei.
- Entitate eta elkarteek gazteei zuzenduta garatzen dituzten jardueren sustapena (diru-laguntzak).
- Sinergiak sortzea partaidetza-prozesuetan, dela unean unekoetan dela sektorialetan.
- Gazteriaren Tokiko Kontseilua sortzea.

**c) Kirola:**

- Udalaren kirol-instalazioen mantentze- eta sustatze-lanak.
- Adin eta mota orotako herritarren jarduera fisikoa bultzatzeko proiektuak sustatu eta abiaraztea.
- Kirol-programak eta -ikuskitzak.



- Lankidetzak kirol-entitateekin.
- Kirol-emanaldien sustapena.

## **7. KULTURA ETA HEZKUNTZAKO ALORRA**

Hezkuntza-sustapena, dagozkion eskumen-mailetan. Kultura sustatzeko jarduerak bultzatu eta kudeatzea.

### **a) Kultura**

- Kultur Plan Estrategiko berri bat sortu eta bultzatzea, Iruñeko kultur aberastasuna bere eginen duena, oso-osorik.
- Iruñeko kultur bizitasuna sustatzea, azpiegiturak sorturik eta kalitatezko ekoizpenak programatuta.
- Kultura sustatu eta hedatzea, Iruñeko hizkuntzetan lan eginda.
- Kultur ekipamenduak sortu eta gizartearen partaidetza dinamizatzea.
- Hiriko espazioa zabaldu eta indartzea, kultur xedeei begira.
- Liburutegi publikoak ezagutarazi eta irakurzaletasuna sustatzea.
- Argitaratutako Udalaren argitalpen zientifiko eta dibulgaziozkoak.
- Talde profesionalen kultur jarduna bultzatu eta sustatzea.
- Hiriko kultur erakunde eta entitateen ekimenak, funtzionamendua eta partaidetza bultzatzea.
- Iruñeak berezko dituen gizarte- eta kultura-jarduerak sustatzea, hala nola Sanferminak eta ekitaldi tradizionalak.
- Jarduera-programak sustatu eta garatzea Civivox zentroetan, kogestio guneak egituratzeko xedeari helduta.
- Sormena sustatu eta arte plastikoaren, antzerkiaren eta musikaren adierazpen garaikideak hedatzea.
- Programazio artistikoaren koordinazioa, Gayarre Antzokiaren Fundazioaren bidez.
- Udalaren arte-ondarea handiagotzeko bultzada.
- Artista gazteen lan profesionala sustatzea, haiei bereziki zuzendutako lehiaketak antolatuta.

### **b) Hezkuntza**

- Mantentze- eta sustatze-lanak hezkuntza-instalazioetan: ikastetxe publikoak, Musika Eskola, etab.
- Ikastetxe publikoaren eraikinen kontserbatze-, mantentze- eta zaintze-lanak.
- Instalazio horiek eskolaz kanpoko orduetan erabiltzeko koordinazioa.
- Herritar guztiei zuzendutako hezkuntza-programen garapena.
- Ikastetxeek garatzen dituzten jarduerak sustatu eta guraso-elkarteei (IGE) haien zereginetan laguntzea, diru-laguntzen edo programa berezien bitartez.
- Lankidetzak unibertsitateekin.
- Araubide bereziko musika-irakaskuntzaren sustapena eta Joaquín Maya musika-eskolaren kudeaketa.
- Iruñeko Haur Eskolen Erakunde Autonomoa alor honi atxikirik egotearen ondoriozko eginkizunak.



## **8. HIRI BIZIGARRIKO ETA ETXEBIZITZAKO ALORRA**

Hiria lurraldean sortzea, hiri-antolamendua planifikatuz eta kudeatuz, xede hartuta naturaguneen eta ondare historiko, kultural eta artistikoko ondasunen babesa, hiri-ingurunearen kalitatearen hobekuntza, eta ekonomia jasangarria zein gizarte-kohesioaren sustapena. Laguntza herritarrek orok etxebizitza duin eta egokiak eduki ditzaten bermatzen. Udalaren alor guztietako proiektuei dagozkien obrak kontratatu eta egitea, ahal den eraginkortasunik handiena lortzeko funtsa publikoak erabiltzean.

Hiriko ondarea eta azpiegiturak kontserbatu eta mantentzea, herritarrek ondasun publikoak baliatu ahal ditzaten.

### **a) Hirigintza, Etxebizitza eta Birgaitzea:**

#### **a.1. Hirigintza:**

- Plangintza eta kudeaketa zerbitzua.
- Planeamendua eta hiri-antolamendua.
- Planeamenduaren garapena eta kudeaketa.
- Hirigintza-diziplinako zerbitzua.
- Hirigintzako lizentziak.
- Jarduera-lizentziak.
- Irekitzeko lizentziak.
- Eremu publikoa obrak direla-eta okupatzeko lizentziak.
- Aurri-egoerak eta eraikuntzako patologiak.
- Betearazpen-aginduak eta ordezeko betetzeak, berezko dituen eskumenei dagozkien gaietan.
- Legezketasunaren kontrola, aurreko gaietan.
- Alor honi lehen egotzitako eginkizunen segimendua eta gainbegiratua, baldin eta Udalaren erakunde autonomoen eta enpresen bidez kudeatzen badira.

#### **a.2. Etxebizitza eta Birgaitzea:**

- Etxebizitza Bulegoa sortzea eta gizarte-alokairuko etxebizitza-politika sustatzea.
- Bitartekaritza ahalbidetzea etxegabete-kasuetan.
- Udalarenak diren etxebizitzaren kudeaketa, herritarren zerbitzura jarrita.
- Udal-etxebizitzaren birgaitze-, mantentze- eta kontserbazio-lanak.
- Jarduketa guztien koordinazioa, etxebizitza- zein birgaitze-esparruetan.
- Udal-ondasunak besterentzea eta behar diren desjabetzeak egitea igogailuak jartzeko bizitegi-eraikinetan.
- Hutsik dauden etxebizitzaren udal-errola sortu eta egunean edukitzea.
- Jarduketak sustatzea hutsik dauden etxebizitzak alokairuan jartzeko.
- Hipoteka Bitartekaritzako Bulegoan laguntzea Iruñean kalteturik dauden familien alde, Nafarroako Gobernuko zerbitzu baliokidearekin lankidetzan.

### **b) Proiektuak, Obrak eta Hiri Kontserbazioa:**

#### **b.1. Proiektuak eta Obrak:**

- Azterlanak egin eta eta proiektuak erredaktatzea.



- Eraikitzeke zein urbanizatzeko obrak egitea.
- Aparkalekuen emakida eta eraikuntzaren segimendua sustatzea, funtzionatzen hasi bitartean.
- Hiriko ondarea eta azpiegiturak birgaitu eta zaharberritzeko obrak eta proiektuak gauzatzea, herritarrek ondasun publikoak baliatze aldera.
- Lankidetzan aritzea hala Hiri Ekologiako eta Mugikortasuneko nola Herritarren Segurtasuneko eta Elkarbizitzako alorrekin mugikortasun jasangarriko politikak ekarriko dituen eraldaketa fisikoak diseinatu eta egiteko orduan (autobus-erriak, bidegorriak, oinezkoen ibilbideak...).
- Oztopo arkitektonikoak kentzea, beste garraibideetarako irisgarritasuna hobetuta.
- *Iruñeko Paisaiari buruzko Plana* bultzatzea, lehenetsia emanez harresi-multzoaren inguruneari.

## **b.2. Hiri-kontserbazioa:**

- Kontserbazio- eta mantentze-lanak (bide publikoak, lorategiak, harresiak, hiri-altzariak, eraikinak, igogailuak eta berokuntza). Plan bat eginen da zerbitzuak publiko bihurtzeko.
- Mantentze-lanetarako kontratuen kontrola.
- Ibilgailu-parkea.
- Hiriko argiteria (kontserbatze- eta mantentze-lanak).
- Hiriko garbiketa.
- Biltegi-parkea.
- Honako hauen gastuak: ur-kontsumoa, zabor-tasak, ureztatzeko urak eta elektrizitate-harguneak zein -kontsumoa.
- Aparkalekuen emakiden segimendua eta haien ustiapenaren kontrola.
- Zangak egin eta mantentzea.
- Pasabideak
- Administrazio-emakidaren araubidepean aparkatzeko tokiak erabiltzeko lagapenen segimendua eta kontrola –esleitu aurretikoa zein ondorengoa-, eta Autobus Geltokiaren administrazio-emakidaren segimendua.

## **9. HIRI EKOLOGIAKO ETA MUGIKORTASUNEN ALORRA**

Herriko biztanleen ingurunea osasungarri gordetzea, osasun-, higiene- eta ikuskaritza-baliabideak baliatuta. Hiri jasangarri baterako eredu bat sustatzea, zeina islatuko baita hala Udalaren jarduketetan, ondarean eta baliabideetan nola oro har hirian bertan. Mugikortasun jasangarriko departamentu berezi bat sortzea, ahalbidetzeko, hala arauen ikuspegitik nola hirian esku-hartzeari dagokionez, herritarrek modu jasangarri eta eraginkorrean mugitzea, betiere lehenetsita oinez, hiri-garraioan edo bizikletaz ibiltzea, garraio motordun pribatua erabili ordez. Energia-autosufizientzia sustatzea udal-mailan, eraginkortasun- eta jasangarritasun-printzipioak balioetsita.

### **a) Osasun zerbitzuak eta osasuna sustatzekoak:**

- Ingurumenaren ikuskeraketa (ura, airearen kutsadura, zaratak...).
- Elikagaien ikuskeraketa (prestaketa, salmenta eta kontsumoa).
- Zoonosia (animalien populazioaren eta haien gaixotasunen kontrola).
- Epidemiologia (osasun-inkestak, elikadurazko toxoinfekzioak, osasun-heziketa).



- Desinfekziorako eta intsektu eta arratoiak hiltzeko parkea.
- Komun publikoak.
- Bainuetxeak.
- Bilketa berezia.
- Laborategia (analisi kimiko eta mikrobiologikoak).
- Hilerria.

**b) Hiri Ekologiako Zerbitzua:**

- Jasangarritasuna sustatzea hirian eta Udalean.
- Pasabide ekologikoen sare bat sortzea, natura integratzeko hiri eraikian.
- Hiriko biodibertsitatea babestea, eta hiriko natur ondarea iraunarazten laguntzea, bai eta animalien eskubideak zaintzea ere.
- Jasangarritasunean murgiltzeko prozesua abiaraztea, udal-arau eta -aurrekontu guztietan eragin behar duen Agenda 21 partizipatibo eta irisgarri bat baliatuta.
- Jasangarritasun-irizpideak eranstea udal-kontratu guztietan eta zerbitzu publikoen kudeaketan.
- Pobrezia energetikoaren kontra borrokatzea.
- Komunitate-konpostajeko guneen sarea bultzatu eta garatzen laguntzea.
- Hiriko komunitate-baratzeen sarea garatu eta kudeatzea.
- Ingurumen-hezkuntzako programak sustatu eta egitea, herritar guztiei zuzenduta: hala adingabeei, ikastetxeen bidez, nola helduei, Ingurumen Museoa eta beste zenbait tresna baliatuta.

**d) Mugikortasuna:**

- Hiriko mugikortasunaren segimendua egin, berariazko azterlanak enkargatu eta jarduteko proposamenak diseinatzea.
- Mugikortasuna diseinatzea Hiri Bizigarriko eta Etxebizitzako zein Herritarren Segurtasuneko eta Elkarbizitzako alorrekin eta Iruñerriko Mankomunitatearekin batera, eta eredu berriaren inguruko prestakuntza eta hedapena planifikatzea.
- Arauetan (Zirkulazio Ordenantza) behar diren aldaketan gidaritza, eta aldaketen sustapena udal-eskumeneko eskusiboak ez diren arauen kasuan (Hiri Mugikortasun Jasangarriko Plana).
- Herritarren kontseiluen, Hiriko Kontseiluaren eta Mugikortasun Jasangarriaren Behatokiaren erabakitzeke ahalmena sustatzea, mugikortasuna ukitzen duten esku-hartzeetan.
- Bultzada ematea ibilgailuen zirkulazioa baretzeari eta bizikletaren erabilerari, horretarako baliatuz Udalaren arau-, ondare- eta tributu-tresnak.
- Hiri Ekologiako Zerbitzuaren ingurumen-hezkuntzako plana zabaltzea, mugikortasun jasangarria ere barne har dezan.
- Nbici-BiziZ zerbitzuaren bideragarritasuna aztertzea eta proiektua birformulatzea, hiri-mugikortasuneko plan zabalago baten barnean sartuta.
- Eskola-bide seguruen sorrera sustatzea, ikastetxeekin elkarlanean.
- Egungo bidegorri-sarea aztertu eta aldaketak sustatzea, Iruñerriko Mankomunitatearekin eta Hiri Bizigarriko eta Etxebizitzako zein Herritarren Segurtasuneko eta Elkarbizitzako alorrekin elkarlanean.
- Oinezkoen pasealekuak –inguruko herrietakoekin lotuak– egitea, Iruñeko auzoak elkarrekin modu seguru eta atseginean lotze aldera.



- Jabari publikoko informazio- eta publizitate-euskarrien emakida.
- Energia-eraginkortasuna sustatzea hala Udalean nola hirian. Udaleko energia-kontsumoak kontrolatu, eta haiei lotutako udal-ekimen guztietan parte hartzea: energia-hornidurako kontratuetan, eraikinen mantentze-jardueretan, eraikin berrien proiektuetan... Hori guztia, Hiri Bizigarriko eta Etxebizitzako Alorrarekin batera.
- Energia-autoekoizpena sustatze aldera, udal-arauak aldatzea –eta foru erkidego mailan egiteko ere bultzatzea–, energia-autokontsumorako ereduak ahalbidetuz zergen eta finantzaketaren bitartez.
- Azterten hastea energia-kontratuak energia berriztagarriak ekoizten dituzten kooperatibekin egiteko aukera.
- **Berriazko helburua: Energia Merkaturatzeko Udal Enpresa bat sortzea, honako eginkizun hauekin:**
- Egungo instalazio fotovoltaikoa kudeatu eta hura hedatzen saiatzea Udalaren eskura dagoen ondarea baliatuta.
- Erraztasunak ematea herritarrek eta gizarte-eragileek energia berdea erabil dezaten (energia-aholkularitza).
- Modu aktiboan bultzatzea ekoizle berriak elkarrekin sarean ari daitezen, ekoizle txikien kooperatiba baten sorrera sustatuz, Udalaren babes juridikoaren pean.
- Sortzeko den enpresa merkaturatzaileak eragindako diru-sarrerak berrinbertitzea pobrezia energetikoari aurre egiteko programetan.

## 10. TOKIKO EKONOMIA JASANGARRIKO ALORRA

Funtzio publikoaren garapen egokia kudeatzen du, eta populazioari buruzko tresnak zein prozedurak bideratzekoak zuzentzen ditu. Alorra, halaber, ahal den eraginkortasunik handiena lortzen saiatzen da, udal-baliabideen kudeaketan. Tokiko ekonomiaren sustapena jasangarritasunaren ikuspegitik eta arreta berezia emanda gizarte-ekonomiaren eta ekonomia solidarioaren sektoreri zein tokiko merkataritzari, bai eta turismoa indartzeari ere.

### a) Giza baliabideak:

- Plantilla organikoa.
- Lan- eta administrazio-kontratuak.
- Harremanak sindikatuen ordezkari-organoeekin.
- Laneko arriskuen prebentzioa.
- Lan-osasuneko ikuskaritza.
- Nominak.
- Atezaintza.
- Aktak.
- Hauteskundeei buruzko Legeak hauteskundeetarako udalei egozten dizkieten zereginak.

### b) Ogasuna, Gizarte Ekonomia, Enplegua, Merkataritza eta Turismoa:

#### b.1. Ogasuna:

- Aurrekontuei buruzko proiektu eta ikerlanak.
- Tributuen gaineko ikerlanak.
- Inbertsioei buruzko azterlanak.
- Baliabide ekonomikoak.



- Diruzaintza.
- Errentamenduak.
- Aseguruak.
- Finantzaketa.
- Kontu-hartzailletza.
- Tributuen kitapena.
- Diru-bilketa.
- Kontabilitatea.
- Ondarea.
- Inbentarioa.
- Erosketak.
- Diru-laguntzen kudeaketa.

## **b.2. Gizarte Ekonomia, Enplegua, Merkataritza eta Turismoa:**

- Bultzada gizarte-ekonomiari eta ekonomia solidarioari.
- Enplegua eta enpresa berriak sortzeko proiektuendako laguntza, lanpostu berriak sortzeko prestakuntza-programa eta udal-merkatuetako marketin-plana.
- Merkataritza-erakargarritasunerako planaren garapena, merkataritza-jarduna sustatzeko auzo guztietan.
- Lankidetzaproiektuak sustatu, koordinatu eta egitea, erakunde publiko eta pribatuekin batera, sektorea indartze aldera.
- Dinamizazio-kanpainak, merkataritzaren eta turismoaren arteko koordinazioa, informazioaren hobekuntza eta artisautzaren sustapena.
- Enpleguaren aldeko Toki Itunaren garapena hiriko merkataritzan.
- Barruti gotortua dinamizatzeko planaren sustapena.
- Turismoa sustatzeko neurriak planifikatu eta bultzatzea.
- Turismo-azpiegituren koordinazioa (turismoa erakartzeko guneak, aterpetxeak, etab.).
- Iruñeko turismo-eskaintza ezagutarazteko jarduketak.
- Azoka- eta biltzar-jardunaren sustapena eta promozioa.
- Hiriko espazioa zabaltzea eta indartzea, turismo-xedeei begira.
- Barruti gotortuaren sustapena, kultur turismoaren produktu gisara.
- Iruña nazioko foroetan zein nazioartekoetan ezagutzera emateko jarduerak eta ekitaldien antolamendua.
- Gastronomiari lotutako ekitaldiak sortu eta halakoei laguntza ematea urte osoan zehar.
- Erromesei harrera egin eta kultur eta aisiako jarduerak antolatzea Donejakue Bidearen erakargarritasunari eusteko.

## **11. HERRITARREN SEGURTASUNEN ETA ELKARBIZITZAKO ALORRA**

Herritarrei babesa ematen die eskubideak zein askatasunak balia ditzaten, eta herritarren segurtasuna bermatzen du elkarbizitza baketsuaren alde eginik eta pertsonak zein haien ondasunak babestuta, betiere legeekin bat. Halaber, izan daitezkeen larrialdiei aurrea hartu eta horien ondorioak ahal den arinenak izatea du helburu.

### **a) Herritarren Segurtasuna.**





- Lankidetzeta Hiri Bizigarriko eta Etxebizitzako Alorrarekin, Iruñeko Herritarren Segurtasunari buruzko azterlana egiteko. Bertan, toki seguruak eta seguru ez direnak aztertu eta bigarrenak hobetzeko neurriak proposatuko dira auzoko autosegurtasunaren printzipioari helduta, orain arteko poliziaren presentzia handiagoari eta kamera espioien ugaltzeari eutsi beharrean.
- Trafikoaren diziplina kudeatzea.
- Ikuskizun publikoen eta aisia-jardueren diziplina kudeatzea.
- Gizabidez jokatzeko Ordenantzaren eta beste ordenantza batzuen diziplina kudeatzea.
- Aparkatze Mugatuko eta Murriztuko eremuak.
- Ordenantzak eta bandoak betearaztea.
- Lizentziak egiaztatzea.
- Ikuskapenak eta gainerako alorren aldeko laguntza.
- Eremu publikoaren erabileraren kudeaketa, karpina eta aldi baterako instalazioena barne, bai eta horien funtzionamendurako baimena ere.
- Zirkulazioaren erregulazioa eta kontrola.
- Bide-segurtasunarekin zerikusia duten zereginak.
- Ospakizunen eta bilkuren kontrola.
- Ibilgailuak erretiratzeko garabi-zerbitzua kudeatzea.
- Atestatuak egin eta sorospinak ematea istripuetan.
- Polizia judizialaren eginkizunak.
- Babes zibilari dagozkion zereginak.
- Anbulantzien eta suhiltzaileen zerbitzuendako laguntza.
- Delinkuentziaren prebentzioa.
- Salaketak bideratzea.
- Objektu galduen bulegoko ardura.
- Gizarte-babesa gauzatzea, poliziaren esparruan.
- Udal-agintarien babesa.
- Udal-eraikinen babesa.
- Zaintalde iraunkorra.
- Ferien, azoken eta antzekoen kontrola.
- Hiriko segurtasun-planak planifikatu eta gauzatzea.
- Aurrekoen antzeko beste edozein eskumen, herritarren segurtasunarekin eta babes zibilarekin zerikusirik izanez gero.

## **b) Bitartekaritza**

- Bitartekaritza-bulego bat sortzea, era ez traumatiko batean konpontzen laguntzeko partikularren arteko arazoak zein Administrazioarekikoak.
- Kultura berri bat sortzea polizia-jardunean, zigorrari baino gehiago prebentzioari begiratzen diona.

## **c) Mugikortasuna**

- Espazio publikoaren erabilera antolatu eta arautzea, ibilgailuen zein oinezkoen mugikortasuna bermatze aldera.
- Xedapenak eta arauak egitea, ibilgailuen zirkulazioa, trafiko-seinaleak, aparkatzeko tokiak eta bidaiarien zein salgaien garraioa arautzeko, Hiri Ekologiako eta Mugikortasuneko Alorrarekin koordinatuta.



- Semaforoen erregulazioa kudeatzea.
- Zirkulazioa antolatzeko jarduketak zuzendu eta arautzea.
- Hiriko seinaleak.
- Aparkatzeko baimen bereziak ematea mugikortasun urriko pertsoneri, bai eta beste edozein baimen ere, baldin eta mugikortasunarekin zerikusirik badu eta hari buruzko eskumena beste inongo organori ez bazaio egotzi.

Dekretu honek sinatua noiz den eta egun horretatik aitzina izanen du indarra, kontuan hartu gabe noiz argitaratzen den Nafarroako Aldizkari Ofizialean.»